

Euskal Unibertsitateranzko bidean kontutan hartu beharreko ohar batzu

Joxe Ramon Etxebarria

Helburu modura Euskal Unibertsitatearen eraiketa jarririk, gauden egoeratik abiatuz oraingo erakunde eta antolakuntza unibertsitarioen oztopoak analizatu dira lehenengo hiru ataletan, zehazki, espainiar eta frantziar estatuetakoko legeak eta sistema funtzionariala oztopo nagusizat hartuz, eta oraingo UPV/EHU deritzon unibertsitate publikoaren transformazioaz Euskal Unibertsitaterik sor ez daitekeela tesi modura jarriz. Hurrengo ataletan egitura zaharren bestekaldean dagokeen Euskal Unibertsitatea berria izango dela argudiatu da, beraren ezaugarri batzuren aipamena eginez eta lorpenerako zenbait bide iradokiz.

Difficulties in the present university organism and organization have been analyzed in the first three sections having as a starting point the situation nowadays and as an aim the construction of the Basque university. We particularly took into consideration as main difficulties, the official system and laws of the Spanish and French States and the basis of our thesis is that it is not possible to build up a Basque university from the transformation of the state university now called UPV/EHU. In the following sections it is discussed whether the Basque university; which is likely to be completely different to that of the old structure, will be a new one; some of its characteristics and ways of achieving success have been mentioned.

«Gaur eguneko sistema unibertsitarioan ongi kokaturik dauden askok, gaur eguneko Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea identifikatu nahi dute "Euskal Unibertsitate" kontzeptuarekin, bost axola bertan sorturiko egitura duen edota inposatu zaigun, irakasleoa Espainiako estatuko gorputz baten parte den, bertan erabiltzen den hizkuntza nagusia zein den, eta barrutia zein duen»

«Jende askok, gauza urruntzat dute Euskal Unibertsitatea. Lortezina den utopiatzat hartzen dutenak ere ugariak dira»

Euskalgintzan diharduten unibertsitarien artean hausnarketa eta eztabaida luzea dugu Euskal Unibertsitatearena. Arazoa ez da oraingoa, XX. mendearen hasieratik planteaturikoa baizik, nahiz eta, azken boladakoari dagokionez, 1992. urtean berriro ere indartsuki planteatu zen Iruñean, Udako Euskal Unibertsitatearen barnean eraturiko eztabaidarako mintegian.

Ez da harritzekoa kezka hau Udako Euskal Unibertsitatean planteatzea, izan ere, erakunde honen helburuetako bat, agian nagusia eta besteak biltzen dituena, etorkizuneko Euskal Unibertsitatea sortzeko baldintzak prestatzea baita. Horregatik, bere hasieratik bertatik argiro aldarrikatu du xede hori, eta praktikara eraman ere.

Gaur eguneko sistema unibertsitarioan ongi kokaturik dauden askok, jadanik unibertsitatea badugula eta, eztabaida beharrik ez dagoela diote. Hauetariko askok, hiru-probintzi baskongadoetakoek batez ere, gaur eguneko Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) identifikatu nahi dute "Euskal Unibertsitate" kontzeptuarekin, bost axola bertan sorturiko egitura duen edota inposatu zaigun, bost axola irakasleoa Espainiako estatuko gorputz baten parte den, bertan erabiltzen den hizkuntza nagusia zein den, eta barrutia zein duen. Hemen kokaturik egotearekin aski dute, nahiz eta kanpoko egituretan eta izaeretan erabat kolonizaturik dagoen. Izatez, Euskal Unibertsitatea kontzeptuaren definizioan bertan baitaude arazoak. Labur esateko, pertsona horiek aipatzen dutena eta artikulua honetan defenditzen dena, bi gauza erabat desberdin dira, elkarrekin zerikusirik ez dutenak. Edo, zehatzago esateko, elkarren kontrakoak.

Jende askok, unibertsitate barrukoek eta kanpokoek, nahiz eta hemen emango dugun definizioekin ados egon, gauza urruntzat dute Euskal Unibertsitatea. Lortezina den utopiatzat hartzen dutenak ere ugariak dira, eta, agian, hauetariko gehienak gaur egun unibertsitatean lanean dihardutenean artean daude, dugun unibertsitatearen egituraren itomenaren kausaz, planteatzen dugun arazoaren irtenbiderik ikusten ez dutelako.

Niri dagokidanez, gauza bat oso argi daukat Euskal Unibertsitatearen eraketaz eta eraikuntzaz, honakoa hain zuzen, arazo hori guk geuk planteatzen ez badugu, alegia Euskal Unibertsitatea sortzean interesaturik gauden pertsonen eta taldeen planteatzen ez badugu, inork ez duela planteatuko. Beraz, planteaz dezagun. Eta jadanik planteaz dezagun, garaiz ibiltzeko, astiro eta betaz proiektuak eta asmoak prestatzeko,

geroko geroaren asmotan gelditu gabe.

Sarri posiblea ez dela esaten digute, inolako funtsezko arrazoirik eman gabe. Guk, ordea, posiblea dela sinetsi behar dugu, eta jadanik horretarako baldintza egokiak prestatzen hasi. Nik neuk sinesten dudanez -beste lankide eta adiskide askok sinesten duten bezala-, aspaldian darabilt ideia hori buruan, Euskal Herrirako irakaskuntza-sistema propioaren sorrerarekin batera. Irakaskuntza-sistema propioaren sorrera guztiz premiazkoa jotzen dut Euskal Herriaren antolakuntzarako, zehatzago esateko, gure herriaren superbizimenerako. Ikaragarritzko ahalegina egiten ari da azken hogeitamar urteotan, irakaskuntzaren erakundetzearen lehenengo mailetan fruituak ere ikusgarriak direlarik, oraindik erabateko umatzeraino iritsi ez diren arren.

Unibertsitatearen egituraren atea ere ukitzera iritsi gara irakaskuntza-sistema propioaren aldarrikapenean, haztamukako ekintzak egin direlarik. Baina Unibertsitateira iristean, arazoak eskuetatik irrist egiten digula dirudi. Guztiok dakigu, ongi jakin ere, hizkuntza dela gure Euskal Unibertsitatearen lehenengo ezaugarria, ezaugarririk funtsezkoena, eta desberdintzeko ia bakarra. Baina zientziaren hizkuntzaren unibertsaltasunaren izenean, gehienera ere Euskal Herrian kokaturiko Unibertsitatearen bat edukitzera iritsi omen gara. Eta hor geratzeko asmoa dute askok. Zer ote da "Euskal Unibertsitatea"? -dioskute gutxiesteneko hitzak erabiliz-, "Erdal Unibertsitatea" izatea nahi dutenek unibertsitateari holako kalifikaziorik ezin jar dakiokela adieraziz, unibertsaltasuna nortasun propioaren ukatzailea bailitzen. Gainera, ikerkuntzaren arazoa dago -esango digute jarraian-. Zer da euskarazko ikerkuntza hori? Ingelesa erabili beharko da nagusiki -dioskute, Amerika berraurkitu bailuten-. Gero beste sasiargudio guztiak agertuko dizkigute segidan, finantzabideetatik hasi eta kalitatearenetik segituz, hizkuntzak kalitatea mugatuko bailuen.

Euskal Unibertsitatearen ametsa egia bihurtu nahi dugunok, aitortu egin beharko dugu helburua garbi, inolako konplexurik gabe, eta gauzatzen hasi. Baina horretarako ausartak izan beharko dugu, umeek galdera harrigarriak planteatzen dizkigutenean ausartak izaten diren moduan, lotsagabeak. Hain zuzen, ideia berriak planteatzeko lehenengo baldintzetarikoak ausart izatean baitago, horretarako intuizioarekin jokatu behar baita, jauzi kualitatiboa eman behar denean batez ere. Geroago etorri ohi da gauzatze-prozesua, arrazoitze-bidea, argumentatze-fasea eta bitartekoak jar-tzearena. Eta intuizioa mugatzeko biderik makalena,

*«Euskal
Unibertsitatearen
eraketa eta
eraikuntzaren arazo
hori Euskal
Unibertsitatea
sortzean interesaturik
gauden pertsonak eta
taldeek planteatzen
ez badugu, inork ez
du planteatuko.
Beraz, planteatze
dezagun. Eta jadanik
planteatze dezagun,
garaiz ibiltzeko,
astiro eta betaz
proiektuak eta
asmoak prestatzeko,
geroko geroaren
asmotan gelditu
gabe»*

*«Zientziaren
hizkuntzaren
unibertsaltasunaren
izenean, gehienera
ere Euskal Herrian
kokaturiko
Unibertsitatearen bat
edukitzera iritsi omen
gara. Eta hor
geratzeko asmoa dute
askok»*

«Legeak eta indar-erlazioak aldakorrak dira, nahiz eta sarri horretarako bidea gogorra eta latza izaten den»

«Jakinaren gainean egon arren, Euskal Herria herri kolonizatua dela eta hiritarretariko askok espainiarizat dutela beren burua eta espainiar izan nahi dutela, horiekin Euskal Unibertsitatea eraikitzerik ez dagoela guztiz argi daukadan puntua da. Gaitzerdi litzateke ordea, berorien indiferentzia soilik bagenu»

ez da gaur eguneko legeteria edota indar-erlazioak aipatzea, argumentu horiek inizatibak mugatzeko eta mozteko pentsaturik baitaude. Ordea, legeak eta indar-erlazioak aldakorrak dira, nahiz eta sarri horretarako bidea gogorra eta latza izaten den.

Abia gaitezen, bada, geure projektua diseinatzen, horretarako lehenik eta behin kokapenarekin hasiko garelarik. Artikulu honetan ohar batzu agertuko ditut, horren inguruko gogoetatik sorturikoak, arazoaren alde zenbait azalduz, nire usterako garrantzizkoak direnak. Hona hemen, laburbilduta, horrelako batzuren zerrenda:

- 1.- Espainiar eta frantziar estatuko legeetatik ezin sor daiteke Euskal Unibertsitaterik.
- 2.- Sistema funtzionariolean oinarriturik ezin sor daiteke Euskal Unibertsitaterik.
- 3.- Gaur eguneko UPV/EHU delakoa ezin bihur daiteke Euskal Unibertsitatea.
- 4.- Euskara nahitaezko zutabea.
- 5.- Euskal Irakaskuntza-sistema propioaren garrantzia.
- 6.- Euskal Unibertsitatea prozesu modura.
- 7.- Irakastegi unibertsitario batzutatik hastearen egokitasuna.
- 8.- Berria vs zaharra.

Espainiar edo Frantziar estatuko legeetatik ezin sor daiteke Euskal Unibertsitaterik

Euskal Unibertsitatearena arazo erabat politikoa da. Euskal herritar guztioi dagokiguna, eta kanpokoen inposaketarik gabe antolatu behar duguna. Euskal herritar guztiok aipatu ditut, jakinaren gainean egon arren, Euskal Herria herri kolonizatua dela eta hiritarretariko askok espainiarizat dutela beren burua eta espainiar izan nahi dutela. Horiekin Euskal Unibertsitatea eraikitzerik ez dagoela guztiz argi daukadan puntua da. Gaitzerdi litzateke ordea, berorien indiferentzia soilik bagenu, txarrena ez baita hori, kolonizatzaileen mentalitateaz jokatzeko baizik.

Euskal Unibertsitatea arazo nazionala da, Euskal Herriaren burujabetzarekin zerikusirik duena, eta gure herriari herri gisako eskubideak aitortuko ez zaizkion bitartean, oztopoz beteriko bide aldapatsu baten gailurrean izango den helburua baino ez da izango. Artikulu honetan eman diogun esanguradun Euskal Unibertsitatea planteatzean, irakaskun-

tza-sistema osoa antolatzeke eskuduntza guztiak geure eskuetan izatea nahitaezko baldintzat dugularik, hori ezin planteatu daiteke gaur eguneko baldintza politikoetan, Espainiako eta Frantziako estatuen menpe egonik eta beraren parte izanik. Gehiago ezagutzen ditudan parteko egoera aipatuz, diodan ezen, Espainiar estatuko legeek argiro adierazi izan dutela hori, bertako Konstituziotik hasi eta LORU (Ley Orgánica de Reforma Universitaria) deritzon legetik segituz. Unibertsitateko irakaslearen kontrola, eraketaren kontrola, eta sarri hain aipatua den Autonomia Unibertsitarioa, gure lurraldean unibertsitate espainolak eraikitzen zuzendurik daude, artezki. Hemengo unibertsitateak (publiko zein pribatuak, hori ez baita oraingo eztabaidagaia) berdin berdin koka zitezkeen Valladolid-en zein Murcia-n, zenbait irakastaldi euskaraz ematen direlako ez balitz. Irakaslearen gorputz funtzionaria erabat estatuala da, bakarria estatu osorako, eta egituraketa eta antolaketa berbera du hemen zein beste edozein probintzia espainoletan. Eta gauza bertsua esan daiteke Frantziaren estatuan kokaturikoez.

Labur esanda, hemen kokaturik dauden unibertsitateak erabat kolonizaturik daude, espainolak edo frantsesak dira, huts hutsean.

Sistema funtzionarialean oinarriturik ezin sor daiteke Euskal Unibertsitateak

Gaur eguneko unibertsitate estatualak kontutan harturik, sistema funtzionarialean oinarriturik daudela esan behar dugu lehenik eta behin, horrek dakartzan ondorio guztiekin. Espainiako estatuari dagokionez, ez soilik unibertsitatea, gizarte osoa ere funtzionaritzen ari dira, segurtasun laboralaren atxakiarekin jende arrunta estatuaren egituraren parte izatera bihurtu delarik, aparatu estatuala leku guztietan presente delarik, ideietan barne. Ene ustez, ez da kritika sakonik egin etengabeko funtzionarizazio-prozesu horri buruz, guztiz beharrezkoa litzatekeena bestalde, estatuarekiko gizarte sumisoa sortu nahi ez bada behintzat. Nire eritziz, euskal abertzaleon ikuspuntutik prozesu hori guztiz kezagarria eta kaltegarria da, zapaltzen gaituen estatuaren egitura barneratzen ari baikara. Dena den, hemen sistema funtzionarialaren kritika egitean, unibertsitateko kasuari lotuko natzaio zuzenki, Euskal Unibertsitatea sortzeko oztopoa izan daitekeela uste baitut, edo alderantziz esanda, horiengandik Euskal Unibertsitateak sortzerik ez dagoela, eta horiengandik kanpo sortu beharko dela adierazteko.

UPV/EHUren barnean nik bizi izan dudana irakasle kontratuen mugimenduaren historia osoan zehar, kontratu labo-

«Hemen kokaturik dauden unibertsitateak erabat kolonizaturik daude, espainolak edo frantsesak dira, huts hutsean»

«Espainiako estatuari dagokionez, ez soilik unibertsitatea, gizarte osoa ere funtzionaritzen ari dira, segurtasun laboralaren atxakiarekin jende arrunta estatuaren egituraren parte izatera bihurtu delarik, aparatu estatuala leku guztietan presente delarik, ideietan barne»

«UPV/EHUren barnean nik bizi izan dudan irakasle kontratatuen mugimenduaren historia osoan zehar, legislazio laborean eta autonomia unibertsitarioan oinarrituriko lan-erlazioak lortzeko burruka, funtzionaritzaren aurreko alternatiba modura planteiatu da beti, eta ez hainbeste laneko egonkortasuna hutsa lortzeko»

«Irakaskuntzaren funtzionarizazioa, oinarri-oinarrian, irakaslegoa Estatuaren logikan integratzeko mekanismoa da. Subjektu aske, independente eta sortzaile gisa garatzeko irakasle orok, ikertzaile orok, intelektual orok dituzten ahalmen potentzialen anulaziorako eta kanalizaziorako prozesua da»

ralaren aldeko errebindikazioa, irakaskuntzan erabilitako funtzionaritzaren sistemaren kritikarekin batera joan da loturik. Mugimendu horretako sektorerik konszienteenen ikuspuntutik, legislazio laborean eta autonomia unibertsitarioan oinarrituriko lan-erlazioak lortzeko burruka, funtzionaritzaren aurreko alternatiba modura planteatu da beti, eta ez hainbeste laneko egonkortasun hutsa lortzeko. Betidanik, problema laborala baino areago problema politikoa izan da.

Hori horrela zergatik den aztertzea komeni da, funtzionaritzaren sistemaren helburuak salatuz, eta sistema horren alde negatibo endemikoen kritika eginez, jarraian egiten saiatuko gara.

Helburuetatik hasirik, *irakaskuntzaren funtzionarizazioa, oinarri-oinarrian, irakaslegoa Estatuaren logikan integratzeko mekanismoa da*. Subjektu aske, independente eta sortzaile gisa garatzeko irakasle orok, ikertzaile orok, intelektual orok dituzten ahalmen potentzialen anulaziorako eta kanalizaziorako prozesua da, esan nahi baita, subjektu kritiko eta bere inguruko errealtate sozial, kultural eta politikoarekiko subjektu konprometitu modura. Helburua, pertsonen pentsatzeko duten ahalmen arriskugarri hori itzaltzea da, alegia, formazio intelektual egokia duen edozein pertsonak duen eta baldintza batzutan gainezarritako menperatze-sistemaren aurka gara dezakeen *plus* berezi hori itzaltzea. Egia esanda, helburu hau ez da inoiz aitortzen, baina analisi minimoa eginez, konstante bezala aurkituko da funtzionaritzaren prozesu guztietan.

Unibertsitateko kasura konkretatuz, bertako irakasleak logika estatalera integratzeko eta asimilatzekeko prozesua, hiru mailatan sailka daiteke:

a. Batetik, irakasleak *gorputz* edo kategoria batzutan txertatzea dator, izan ere, alde aurretik estatuak definiturikoak eta normalizaturikoak diren kategoriak (oraingo legearen arabera, laguntzailea, irakasle laguna, titularra, katedratikoa). Modu horretan irakaslegoaren uniformizazio-prozesua hasten da, irakaslea, bere borondatez gaineratik, taldearen legera automatikoki sometiturik geratuko delarik, hau da, sozializazio bortxatura. Modu horretan zenbaki modura kontatua izatera pasatuko da (numerarioa izatera), kolektiboarekin bat egitera, kolektibo barnean diferentziaziorik gabe (indibidualtasunaren galpena eratorririk).

b. Bestetik erlazio eta kategorien ezarpena dago, beti ere beren arteko lotura-arauak jerarkia eta subordinazio-printzipioen bidez zehaztuz. Modu honetan Armadaren antzeko egitura piramidala sortzen da, kategorien arteko igoerarako

mekanismo eta metodoak zehaztasunez finkatuz, mekanismo horiek gehiago arautuko direlarik baldintza juridiko-burokratikoaren arabera, irakasleen benetako ahalmen dozente eta ikertzaileen arabera baino.

c. Aldi berean, *gorputzen* egitura hori Unibertsitatearen antolakuntza-egitura orokorraren parte da (Sailak, gobernu-organoak,..), hauek guztiok modu estamentalean eraturik egonik. Funtzionamendua arautzeko unibertsitatekanpoko lege zentralizatuak ezarri dira (LORU, Funtzio Publikoaren Legea), ondoren horien azpian dauden maila beheagoko arauak jarririk (Unibertsitateko Estatutuak, Ikastegietako eta Sailetako Arautegiak, eta abar), berauen bidez ekintza unibertsitarioak beren xehetasunik txikienetan ere goitik behera arautuz, bertikalki.

Antolakuntza funtzionarial honek balio-eskala berezia sortertzatzen du etengabe, *gorputzaren ideologia*, funtzionariala deritzon izpiritu berezia, jokamolde unibertsitario guztiak kutsatzen dituena. Jokamolde horren ezaugarriak honakoak dira: Talde-gremialismoa indibidualismo izugarriarekin konbinatua, erlazio profesionaleko konpetibitate itsua, kontserbadurismo soziala, unibertsitate barneko funtzionamendu praktikoaren gehiegizko legalismoa, irakaslearen parte handiaren mentalitate juridikoa, erlazio humano eta sozialeko inpersonalismoa eta burokratismoa, injustizien aurreko sentikortasunik eza, hurbileko interes ekonomikoekiko eta pribilegio laboral eta sozialekiko lotura, elitismo artifiziala, benetako konpromezu sozialik eta kulturalik eza, agintearen eta karguen erabilpenerako estilo autoritario eta dogmatikoa, boteretik asignaturiko errolen interiorizazioa, lankideen arteko intsolidaritate-maila handia, sumisioa eta maila guztietako otzantasuna,... Hitz batez, ikaratzeko bezainbestekoa.

Eguneroko praktika dozente eta ikertzaileetan eta ekintza extraunibertsitarioetan funtzionamendu-eredu honek dituen efektuak izugarriak dira. Sistemaren logikak promozio akademiko, kurrikular, sozial eta politikorako bilaketa antsiosoa sortertzerazi du, eta honek betebeharrak kontraktual batzuren bazterketara eramanez hainbat eta hainbat irakasle, batez ere irakaskuntza betebeharrak bazterketara. Irakaskuntzarekiko desinteres nabarmena sortu da, horrek ez baitu inolako garrantzirik promoziorako, karrera funtzionarialerako. Bestalde, jakintzaren instituzionalizazio akomodatiziora gertatzen ari da, bertan ezagutzaren pilaketa soilik bilatzen delarik, ikasleen arteko zabalkuntzarako ekintzak minusbaloratuz. Ikaslea ez da ezer. Ez da kontutan hartzen Unibertsitatearen zerbitzu publikoaren zutabe nagusienetako bat ikasleen for-

«Antolakuntza funtzionarial honek balio-eskala berezia sortertzatzen du etengabe, gorputzaren ideologia, funtzionariala deritzon izpiritu berezia, jokamolde unibertsitario guztiak kutsatzen dituena»

«Sistemaren logikak promozio akademiko, kurrikular, sozial eta politikorako bilaketa antsiosoa sortertzerazi du, eta honek betebeharrak kontraktual batzuren bazterketara eramanez hainbat eta hainbat irakasle, batez ere irakaskuntza betebeharrak bazterketara»

*«Ikaslea ez da ezer.
Ez da kontutan
hartzen
Unibertsitatearen
zerbitzu publikoaren
zutabe nagusienetako
bat ikasleen
formazioa dela»*

*«Estatuko
gorputzaren parte
izateko meritu eskasa
da euskalgintzan
aritzea, demeritua ez
bada; meritu eskasa
da, unibertsitateko
irakaskuntza
euskalduna
bultzatzea, demeritua
ez bada; meritu
eskasa da euskal
lerroak abiaraztea,
demeritua ez bada;
meritu eskasa da,
euskal testugintzaren
azpiegitura
prestatzeko lana
egitea, demeritua ez
bada»*

mazioa dela. Bestalde, promozioaren lasterketako indibidualismoak lotu eta murriztu egiten ditu Sailen barneko erlazioak, harreman intelektualak pobretuz, talde-lana eta interdisziplinartatea baztertuz, pentsamenduaren askatasun eta egiaren bilaketa kritikoa ezinezkoa bihurtuz.

Zer esanik ez, aurrekoaz gainera, Euskal Herrian bizi garelarik, gure hizkuntzaren eta kultura nazionalaren zabalpen-rako desinteresa bultzatu du, gure herriaren benetako problemak alde batetara bazterturik. Estatuko gorputzaren parte izateko meritu eskasa da euskalgintzan aritzea, demeritua ez bada; meritu eskasa da, unibertsitateko irakaskuntza euskalduna bultzatzea, demeritua ez bada; meritu eskasa da euskal lerroak abiaraztea, demeritua ez bada; meritu eskasa da, euskal testugintzaren azpiegitura prestatzeko lana egitea, demeritua ez bada. Eta alderantziz esanez, gorputz funtzionarialaren helburuen artean ez dago inolako asmorik gure hizkuntzaren eta kulturaren garapenerako, kontrakoa ez bada.

Labur esanez, funtzionaritzaren bidez Unibertsitatea Estatu zentralaren eta bertako talde menperatzaileen interesei loturik geratzen da. Sistema honek birsortu egiten du etengabe bere izaera eta funtzionamendua, eta, halaber, botererako erlazio sozialak, hain zuzen ere, nortasun nazional euskalduna ukatzen dutenak.

Gaur eguneko UPV/EHU delakoa ezin bihur daiteke Euskal Unibertsitatea

Euskal Komunitate Autonomoan kokaturik dagoen Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) deritzona, 1968. urtean sorturiko Universidad de Bilbao zelakoaren ondorena da. Harrigarria bada ere, ordurarte Hego Euskal Herria Salamanca, Valladolid eta Zaragoza-ren menpe zegoen, gure lurraldean kokaturik zeuden ikastetxe unibertsitario bakarrak Ingeniarien Eskola eta Ekonomia Fakultatea zirelarik. Orduko erregimenaren zigor politikoaren parte izan zen barruti unibertsitariarik eza. Hala ere, garaiko baldintza politikoek Ley General de Educación zeritzona erakarri zuten, horren babespean Madril, Bartzelona eta Bilboko unibertsitate "autonomoak" sortu zirelarik.

Esan gabe doa, unibertsitate-sistema espainolaren barnean sortu zutela, "Euskal Unibertsitate" bihurtzeko inolako asmorik gabe. Geroago, hirurogeitamabostgarrren urte inguruan, mugimendu politiko interesgarria sortu zen indar aberzaleen artean, Hego Euskal Herrirako barruti unibertsitario bakarra sortzea eskatuz. Beste askotan bezala, eskari hori hiru probintzietarako mamiturik geratu zen, nahiz eta uniber-

tsitatearen izenean Euskal Herria izena sartu. Engainu hutsa itxura egiteko, izanik gabeko izena sortu baitzen, eta aldi berean Nafarroa urrundu.

Bizi garen lekuan bizi baikara, eta gu geu izaten ez uzteko dauden legeen aurka ere eraiki behar dugu geure nortasuna. Horregatik UPV/EHU horretan etorkizunerako Euskal Unibertsitaterako onuragarriak izan daitezkeen pausoak ematen saiatu gara hasieratik, euskarazko irakaskuntza bultzatuz, euskal adarrak irekiz, irakaslego-mota propioa sortu nahian, autonomia unibertsitarioa erabili eta garatu nahian, eta abar. Baina aldi berean, bestelakoek ere lan egiten dute unibertsitate berean, eta gure helburuaren aurka egonik, ahal dituzten oztopo guztiak jartzen saiatzen dira.

Oztopo-lasterketa, unibertsitatez kanpotik kudeatzen da, erakunde politikoetatik, Espainiako Gobernutik eta bertako tresna den Parlamentutik. Etengabe lege eta dekretu murriztaileak jarrerazten dizkigute, nortasun propioa izateko lagun dezaketen erabaki guztiak ustel gera daitezkeen. Zentralizatu egiten dute etengabe erabakiak hartzeko ahalmena, hemen go funtzionarien eskuetan unibertsitatez kanpo sorturiko arauak bete eraz ditzaten ordena emanaz. Zer esanik ez, funtzionarioek arau horiek markaturiko erritmoaz funtzionatzen dute. Horrela, oinarrizko eskubidetzat aitortua den autonomia unibertsitarioa hitz hutsa bihurtu dute.

Nolanahi ere, ez da ahantzi behar, unibertsitate barruko jende askok ere oztopatu nahi duela Euskal Unibertsitate-rantz-ko prozesua. Espainiako proiektu politikoaren alde dauden indar politikoen kintakolumnistarik onenak barruan baitaude. Izan ere, ez da nahikoa erradikala izatea edo abertzale edota ezkerrekotzat aurkeztea, horietako askok Espainiako legea beren alde baitute, eta horixe baita beren argumentu bakarra. Zer esanik ez, gaurko sistema funtzionarialak babesa ematen die, eta baita bidea, egoera hori etengabe birsortua izan dadin.

Badira, hala ere, egunen batetan unibertsitate hau aldatuz joango dela eta agian erabat euskaldunduko dela uste dutenak ere. Guztiz oker daudela eta hori sagarrondoari intxaurrek eskatzea bezalakoa dela uste dut. Oso alderantziz, garaiz erreakzionatzen ez badugu, eta neurri gogorrak hartu, gero eta unibertsitatea espainolduagoan biziko garela uste dut. Oker ainengo!

Euskara Euskal Unibertsitatearen nahitaezko zutabea

Mundu osoko unibertsitateak egitura antzekoa hartuz doaz. Zientzia edo Jakintza Arlo desberdinetako atal txikiei dagoz-

*«UPV / EHU horretan
etorkizunerako
Euskal
Unibertsitaterako
onuragarriak izan
daitezkeen pausoak
ematen saiatu gara
hasierati»*

*«Oztopo-lasterketa,
unibertsitatez
kanpotik kudeatzen
da, erakunde
politikoetatik,
Espainiako
Gobernutik eta
bertako tresna den
Parlamentutik.
Etengabe lege eta
dekretu murriztaileak
jarrerazten dizkigute,
nortasun propioa
izateko lagun
dezaketen erabaki
guztiak ustel gera
daitezkeen. Oinarrizko
eskubidetzat aitortua
den autonomia
unibertsitarioa hitz
hutsa bihurtu dute»*

*«Badira, hala ere,
egunen batetan
unibertsitate hau
aldatuz joango dela
eta agian erabat
euskaldunduko dela
uste dutenak ere.
Guztiz oker daudela
eta hori
sagarrondoari
intxaurreak eskatzea
bezalakoa dela uste
dut»*

*«Hizkuntza bat
inposatzen duenak
inoiz ez du aitortuko
inposatzen duenik -
eta argudio
sutilagoak erabili ohi
ditu.
"Unibertsaltasuna",
"soziologia",
"praktikotasuna",
"gehiengoaren
praktika" eta gisa
horretako argudioak
ditu gustuko»*

kien Sailetan antolatu ohi dira, bertako irakasleen irakaskuntza eta ikerkuntza nahiko autonomiaz eratuz, arazo teknikoei dagokienez. Irakaskuntzarako programak gero eta antzerakoagoak dira, gai "unibertsaltetaz" ari direnean. Natur Zientzietan, adibidez, espezialitateek ia izen eta izan berbera dute leku gehienetan, beti ere prestigio gehien duten unibertsitateek beren "eskola" sortzen dutelarik, eta ahal den neurrian imitatuak direlarik. Horri dagokionez, programa "unibertsalak" egin daitezke ia-ia, guztientzako baliagarriak. Alde horretatik mundu guztiko unibertsitateak gero eta berdinagoak dira, eta gaur egunean dagoen higikortasunarekin, ikasle batzuk gero eta posibleago dute edonora joatea. Baina ez guztiak, noski, tartean giroko hizkuntzaren arazoa dagoelarik.

Gauzak horrela, aurreko ikuspuntutik mundu guztiko unibertsitateen uniformizazioa gertatzen ari den une honetan, zertara dator "Euskal Unibertsitate" desberdin horren aldarrikapena? Zertan desberdina?

Burruka linguistikoan oso jokabide maltzurak daude gure artean. Hizkuntza bat inposatzen duenak inoiz ez du aitortuko inposatzen duenik -ezin dezake holakorik aitor, beraren hondamena bailitzateke-, eta argudio sutilagoak erabili ohi ditu. "Unibertsaltasuna", "soziologia", "praktikotasuna", "gehiengoaren praktika" eta gisa horretako argudioak ditu gustuko. Eta maltzurkeria horretan, sinesterazi egin nahi izaten dio inposatua denari, berau dela inposatzailea. Adardun eta, gainera, astindurik.

Gure kasuan, jokabide hau oso nabarmena da. Euskararen aurka daudenen eritziz, euskal hiztunok omen gara euskara inposatu nahi dugunok. Erdara ez omen zaio inori inposatzen, guztiok baitakigu, zientzia infusoz ikasia baikenuen. Beste jokabide bat, unibertsitatean oso erabilia dena, ingelesaren bidezko atxakiarena da. Ikerkuntzarako hizkuntza unibertsala omen da. Ingelesa ikasi behar omen da unibertsitatean, eta ez euskara, hori bestelako mailetan ikasita nahikoa eta aski baita. Liburu onenak ingelesez baitaude, aldizkari zientifiko gehienak ingelesez baitaude, ikertzaile gehienek beren arteko erlazioetan ingelesa baitute erabilien. Ingelesa ikasi behar dugulakoan, ordea, ez da gaztelania ezertarako baztertzen, euskara baizik; eta gaztelania erdian gelditzen da inolako kritikarik gabe. Kritikak euskararentzat dira, eta ingelesa, gaztelania babesteko ezkutua.

Euskal Unibertsitateko hizkuntza euskara izango dela aldarrikatu behar da lehenengo unetik, irakaskuntzan, ikerkuntzan eta unibertsitate barneko harremanetan, bai administrazioarekin ditugunetan, bai erlazio laboraletan, bai gauza

ofizial guztietan. Printzipio hori onartuta, beste hizkuntza guztiak aberasgarri izango dira, kanpoko irakasleekiko harremanetan behar den kasuetan erabiliak. Hizkuntzak jakitea aberasgarri baita, informazio-iturri modura, kanpoko publikazioen ulermenerako, edota kanpokoekiko harremanetarako.

Euskal Irakaskuntza-sistema propioaren garrantzia

Baina hizkuntza ez da Euskal Unibertsitatearen definizioan darabilgun osagai bakarra. Ideia eta asmo hori plazaratu egin dutenek inoiz ere ez dute ukatu, azpimarratu baizik, Euskal Unibertsitatea proiektu nazionalaren barnean ikusten dutela. Herri honek herri modura bizitzen segitzeko besteren arteko tresna modura planteatu izan dute beti, eta ez gauza isolatu bezala, "Euskal Irakaskuntza-Sistema Propioa" bataiatu izan dutenaren atal modura baizik.

Euskal Herriaren berreraikuntza nazionalerako prozesua aztertu duen edonork, irakaskuntzaren arloan azken hogeita-mar urteotan abiatuak dagoen herri-mugimendu sendo eta sakonaren garrantziaz jabeturik egon beharko luke. Izan ere, irakaskuntzaren arloan edozein naziok bere superbizimenerako oso kontutan hartu beharrekoa baita. Gure artean, gaur egun Ikastolen mugimendua da horren adierazlerik sendoena, hizkuntzaren segurtamenerako prozesutik abiatuak, beste hainbat arlotan ekarpen oso interesgarri eta propioak dituenak, hala nola programazioen eta ikasgaien berriztapenean, metodologia partehartzailean eta kudeantzarako autonomian. *Herri-iniziatiba publikoaz* (eta ez hainbeste iniziatiba "pribatuz", batzuk azken adjektiboa azpimarratu nahi dutenez) sorturiko mugimendu honek egitura berezia sortu du, proiektu nazional modura gauzatu delarik, bai lurraldekotasunari dagokionez, zein gizarte gaien kokapenari dagokionez. Hain zuzen, horregatik, proiektu espainolean abiatuak dauden indar gubernamentalek, Buesa gidari dutelarik, proiektu horren zikirapena edo irenketa ekarri nahi dute, Espainiakoaren kalkoa den eskola-sisteman irentsi nahirik.

Irakaskuntza-sistema propio horrek eraketa osoa izan dezan, unibertsitate-mailako atala ere barnean hartu behar du, eta hortxe kokatzen dugu prezeski Euskal Unibertsitatearen proiektua. Proiektu erabat autonomoa, gobernuen interes partidistetatik autonomoa, Espainiako eta Frantziako legeetatik guztiz autonomoa, bere irakaslego eta antolakuntza propioarekin.

Euskal Unibertsitatea prozesu modura

Euskal Unibertsitatea ez da, ordea, dekretu edo lege baten bidez besterik gabe lor daitekeen gauza, legea litekeenik

«Euskal Unibertsitateko hizkuntza euskara izango dela aldarrikatu behar da lehenengo unetik. Printzipio hori onartuta, beste hizkuntza guztiak aberasgarri izango dira»

«Euskal Herriaren berreraikuntza nazionalerako prozesua aztertu duen edonork, herri-mugimendu sendo eta sakonaren garrantziaz jabeturik egon beharko luke. Gure artean, gaur egun Ikastolen mugimendua da horren adierazlerik sendoena. Irakaskuntza-sistema propio horrek eraketa osoa izan dezan, unibertsitate-mailako atala ere barnean hartu behar du, eta hortxe kokatzen dugu prezeski Euskal Unibertsitatearen proiektua»

«Euskal Unibertsitatea ez da, dekretu edo lege baten bidez besterik gabe lor daitekeen gauza, legea litekeenik onena izanda ere. Maila horretako proiektua osotzeko, horretan interesaturik dauden partaidetza eraginkorra lortu behar da, ikasle, irakasle, administrazioko langile eta, orohar, hiritarrak»

«Euskal gizarte osoaren proiektua izan beharko da, gizarte euskaldunaren trinkotzerako elementu lagungarria izan daitekeena, eta, horregatik, euskal herritarrok badugu zer esanik eta zer eginik prozesua bururaino eramateko»

onena izanda ere. Maila horretako proiektua osotzeko, horretan interesaturik dauden partaidetza eraginkorra lortu behar da, ikasle, irakasle, administrazioko langile eta, orohar, hiritarrak, irakaskuntza-sistema herritar guztion ondarea baita, eta horrek prozesu luzea ibili beharra dakar berekin.

Prozesu luzea izan daitekeela aitortzeak ez du esan nahi, inoiz abiatuko ez denik. Gehiago oraindik, ene eritzian, abiatu dago mende honen hogeiko hamarkadatik, gero gerra aurreko ekinaldiekin, Udako Euskal Unibertsitatearen sorrerarekin, euskal barrutibakarraren eskariarekin eta UPV/EHUko euskal adarrekin eta besterekin segituz, eta abiatze horrek gotortze-uneak izan ohi ditu, berreraikuntza nazionalako ekitaldiekin. EU erakunde modura sortzeko kezka ere, bizirik dago, ikusi besterik ez baitago, UEUren inguruan gai monografikotzat harturik antolatu den mintegia. 1992-93 ikasturte honetan, UPV/EHUko irakasle kontratatuen gatazka tartekoa dela sortu den elkartasun-mugimendua ere, horren adierazlea da. Bertan eraturik laguntza-batzordeek behin eta berriro aipatu izan dute irakaskuntza-sistema propio osoa sortzearen premia.

Elementu horiek guztiok prozesuaren barneko etapa desberdinen agerraldiak direla esatera ausartuko naiz. Prozesua hor dago, egunen batetan erakundetze zehatzean gauzatuko den ala ez, hori beste gauza bat da, neurri handi batetan proiektu horren aldekoak garenon eskuetan dagoena. Bestela esateko, euskal gizarte osoaren proiektua izan beharko da, gizarte euskaldunaren trinkotzerako elementu lagungarria izan daitekeena, eta, horregatik, euskal herritarrok badugu zer esanik eta zer eginik prozesua bururaino eramateko. Eta oraindik maila teorikoan eta asmoen mailan baino agertzen ez bada ere, egunen batetan maila praktikora pasatu beharko da, eraikuntza materialak eta antolakuntzarako erakundeak sortu beharko direlarik. Edozertara, tamaina horretako proiektuak eskatzen dituen baliabide ekonomikoak handiak izanik, herritarren eskari bortitza bideratu beharko da, erakunde publikoen agintaritzaren politikoen dauden indarrek, Euskal Unibertsitatearen antolaketaerako egin beharreko inbertsioen ardua har dezaten.

Nolanahi ere, prozesua aspalditik abiatu dagoela, ezin gara lotan gelditu eta, batzuk nahi luketen bezala, independentzi egunerarte zain egon. Hori, benetan, arazoaren konponketa *ad calendas graecas* atzeratzea litzateke. Jadanik abiatu behar dugu, problematika plazaratuz, Euskal Unibertsitatearen aldeko ekintzak eginez, gauden tokian oinarri-ko prestakuntzan arituz, unibertsitateko irakaskuntza eta

ikerkuntza euskaldunaren oinarriak jarriz, ikastetxe unibertsitarioak eraikitzeke proiektu konkretuak aurkertuz,...

Irakastegi unibertsitario batzutatik hastearen egokitasuna

Aurreko atalean Euskal Unibertsitatearena prozesu luzea izan daitekeela aitortu arren, horrek ez du esan nahi eraikuntza konkretua ere jadanik has ez daitekeenik. Ene ustez, pausoka hasi beharko delarik, ez da beharrezkoa unibertsitateko atal askorekin hastea, eta bakar batetatik edo batzutatik has daiteke, beste unibertsitateekin hasi den modura. Esate batetarako, fakultate edo goi-eskola konkretua aukera daiteke modu experimentalean, mailakako prozesu batetan bospasei urtetan irakastegi osoa eraikitzeraino. Behin eraikuntza-prozesu hori abiatu, praktikarekin ikusi beharko litzateke zein beste irakastegitatik segitu.

Inoiz Euskal Unibertsiterako mintegian izandako eztabaidetan, mota honetako galdera planteatu izan ziguten: «Bitarteko material eta ekonomikoak bazenitu, eta hori egiteko posibilitate politikoak bazenitu, nondik hasiko zinateke Euskal Unibertsitatea eraikitzen? Zer fakultate egingo zenue lehenen?». Badakit galdera guztiz hipotetikoa dena -oraingoz-, baina serioski erantzutea alferrekoa lana ez dela uste dut.

Bere garaian publikoki esan nuen bezala, ni neu, Ingeniaritza-Eskola bat eraikitzen hasiko nintzateke. Arrazoi asko eman ditzaket, horretarako baina hona hemen batzu. Gaurko gizarte teknologizatu eta teknologizaleuan ere abiatu behar dugula uste dudalako, eta orain arte, gai horiek alde batetara utzi izan ditugulako, kulturaren parte garrantzizkoa ez bailiren. Euskarari dagokionez ere, badirudi, gizarte arloko gaiak premiazkoagotzat hartu izan ditugula, hurbilagokoak baitira, zientzia eta teknikako gaiak teknikarientzat utzirik, teknika bizitza arrunteko atal guztietan presente dagoela konturatu gabe. Gaur eguneko unibertsitatean ere (UPV/EHU adibidez), euskalduntze-plangintzarako lehentasunak aukeratzekoan, teknologiarloko gaiak bigarren edo hirugarren etapa batetarako uzten dira, gizarte euskaldunagoa izango den egunerako edo utzirik. Nire eritzian, oster, teknologiazko irakastegia behetik gora berria eraiki behar denez, eta prozesua zenbait urtetan burutu behar denez, plangintza egokia prestatuz oso ondo antola daitekeen proiektua da. Gainera, gizarteak Euskal Herriaren ehun edo sare ekonomikoaren berregituraketaren bidetik planteatu dezake mota honetako irakastegi unibertsitarioa, eta ilusioz bultzatu era horretako

*«Nolanahi ere,
prozesua aspalditik
abiatu dagoela,
ezin gara lotan
gelditu eta, batzuk
nahi luketen bezala,
independentzi
egunerarte zain egon.
Jadanik abiatu behar
dugu, problematika
plazaratu, Euskal
Unibertsitatearen
aldeko ekintzak
eginez»*

*«Fakultate edo goi-
eskola konkretua
aukera daiteke modu
experimentalean,
mailakako prozesu
batetan bospasei
urtetan irakastegi
osoa eraikitzeraino.
Behin eraikuntza
prozesu hori
abiatu, praktikarekin
ikusi beharko litzateke
zein beste
irakastegitatik
segitu»*

«Ni neu, Ingeniaritza-
Eskola bat eraikitzen
hasiko nintzateke.
Gainera, gizarteak
Euskal Herriaren
ehun edo sare
ekonomikoaren
berregituraketaren
bidetik planteatzen
dezake mota
honetako irakastegi
unibertsitarioa, eta
ilusioz bultzatu era
horretako proiektua»

*Dagoenetik- UPV/
EHU, UPNA- gurea ez
den sistema espainola
birsortu eta gure
artean errotu baino
egiten ez dugula uste
izanik, gauza berria
aldarrikatzen dugu,
zaharrarekiko
desberdina, eta
zaharraren
transformazioaz sor
ez daitekeena»*

proiektua. Ingeniaritza-Eskola izatean gainera, bi ziklotan antola daiteke egokiro, lehenengo zikloaren esperientziarekin gero goi-ingeniarietza eskolarako pausoa emanez.

Berria versus zaharra

Argi utzi behar da: Euskal Unibertsitatea, ezer izango bada, zerbait berri izango da, euskal gizarte berri baten adierazle. Ene ustez, hori argi ez edukitzeak, hainbeste indar alferrik galtzea eta azken hogeituro urteotako esperientzia praktikotik gauza gutxi ikastea esan nahi du. Ikusi besterik ez dago, hizkuntza eta kulturaren proiektu hibridoak -elebidunak, nahiago bada- egiten saiatu izan den ia-guztietan (ez naiz guztietan esatera ausartzen arau guztiek beren salbuespena baitute), erdararen nagusitasuna edota proiektuaren hondorapena etorri baita.

Gauza bat da hasierako apaltasuna eta beste gauza bat, oso desberdina, handinahikeriagatik proiektuaren desbiderapena hasieratik burutzea. "Kalitatea" ohi da boomerang modura jaurtikitzen diguten eraso. Irakaskuntzaren eta irerkuntzaren kalitateak egintza burutzeko egiten deneko hizkuntzarekin zerikusirik baileukan. Bistakoa denez, kalitatea irabazi beharreko apostua izango dela, sortuko den unibertsitate euskaldunean etengabeko erronka izango dena. Baina kalitatea ez da egun bateko lorea, ezerezetik datorrena, urteetako eta giza-talde osoaren emaitza baizik. Bitartekoak eta behar den laguntza (teknikoa, zuzendaritzazkoa, ekonomikoa,..) edukiz, zalantzarik ez dut, irits daitekeen helburua dela.

Erakundetze berria eman diogu geure herriaren irakaskuntza-sistemari, sistema propioari, eta horren barnean Euskal Unibertsitateari. Dagoenetik-UPV/EHU, UPNA- gurea ez den sistema espainola birsortu eta gure artean errotu baino egiten ez dugula uste izanik, gauza berria aldarrikatzen dugu, zaharrarekiko desberdina, eta zaharraren transformazioaz sor ez daitekeena. Lurrekotasunez berria, funtzionatze-metodologiaz berria, irakaslegoaren egituraz berria, autonomia unibertsitarioaz. Prozesu berria ireki beharko baita. Prozesu honetan egitura zaharrean gaudenok -nahi izanez gero, baina zaharrarekin identifikatu barik, funtzionaritzari uko egingez, adibidez- zer esan asko daukagu.

Joxe Ramon Etxebarria
EHUko irakaslea

Teacher of UPV-EHU
(University of the Basque Country)